

Gutuna. E.B. agentziari

Egoera: Ingeles maila hobetzeko, batxilerreko 2. maila gaindituta, Irlandarantz abiatu zinen uztailean. Online hitzartuta zenituen ikastaroaren xehetasunak E.B. (English Botch) agentziaren bidez: eskolak, egonaldia familian, txangoak... Dublinoan, berehala konturatu zinen E.B. agentziak ez zuela hitzartutakoa bete. Esperientzia desatsegina, ezustekoz betea gertatu da.

Haserre zaude eta pentsatu duzu agentziako arduradunari gutuna idaztea,

- **Nork:** zeuk
- **Nori:** Koldo Adarjoz E.B. agentziaren Bilboko arduradunari.
- **Zer:** antolakuntza desegokiak eragindako gorabeheren eta gastuen berri eman; gertatutakoaren larritasuna nabarmendu; hurrengoan horrelakorik gerta ez dadin zenbait urrats proposatu; egindako kaltea ordaintzeko eta zure arazoa bideratzeko eskabide zehatza egin.
- **Nola:** posta elektronikoz edo postaz.
- **Hitz kopurua:** gutxienez, **150** hitz.

Bergaran, 2018ko urriaren 6an

Jaun hori:

(Hemendik abiatuta, 150 hitz gutxienez)



AUKERATUTAKO GAIA

EB AGENTZIARI (GUTUNA)Atertuaile-
rentzat

150 hitz gutxienez

Atertuaile-
rentzat

Bergaran, 2018ko urriaren 6an

Jaun hori:

Naiara Arriaga nauzu eta EB agentziak antolatutako ingeles ikastaroan hartu dut parte. Gutun honen bidez, egonaldian zehar izandako arazoak azaldu nahi dizkizut, baita hurrengo batean gorabehera horiek konpontzeko zenbait proposamen egin ere.

Best./Egit.

[Aurreko uda honetan] uztailearen bigarren astean hain zuzen ere, zuen agentziaren ikastaroan hartu dut parte. Dublinen zen ikastaroa eta bertako familia baten etxean izan nintzen nire ingeles maila hobetzeko helburuarekin. Zoritxarrez, familia horren ama-hizkuntza ez zen ingelesa, italiarra baizik, eta italiaraz mintzatzen ziren gehienetan, baita ni aurrean nintzela ere. [Beraz, entzumenari dagokionez] ingelesea hobetzeko aukera gutxi izan nituen.

Best.

Lex.

Egit. —

Kohes.

|| Gainera, nire Irlandako familiak ez zuen EB agentziak antolatutako txango ofizialen berri. Adierazi zidatenez, irteera horiei buruzko inolako informazio**rik** ez zuten eta, horregatik, txangoetara joan gabe itzuli naiz Euskal Herrira.

Ort.

Amaitzeko, beste hutsegite bat aipatu nahi dut. Logelarekin du zerikusia, izan ere, agentziaren web-orrian argi eta garbi adierazten da ikasle bakoitzak bere logela izango duela, baina hori ez da horrela izan. Nire kasuan, zazpi urteko haur batekin partekatu dut logela eta ez dut inolako intimitaterik izan.

Punt.

Zenbait proposamen egin nahi dizkizuet, egoera hau berriro gertatu ez dadin. Batetik, ikastaroan parte hartzen duten familia guztien ama-hizkuntza ingelesa dela ziurtatzea, eta, bestetik, hemendik aurrera, familiei ikastaroaren gaineko informazio egokia helaraztea, gaizkiulerturik izan ez dadin.

Erref./Punt.

Nire proposamenak kontuan hartuko dituzuelakoan,

Kohes.

Adeitasunez,

Naiara Arriaga

Gutuna: E.B. Agentziari - 2 -

<p>Kalifikazioa: 6,5</p> <p>+: 1, 2, 9</p> <p>-: 5, 6, 7, 14</p>	<p>Edukia: Atazak eskatutakoa bete du; hala ere, zenbaitetan zailtasunak izan ditu esan nahi izan duena argi adierazteko.</p> <p>Informazio jauziak daude, esaterako, bigarren eta hirugarren paragrafoaren artean.</p> <p>Moldea: Oinarrizko egiturak ezagutzen ditu eta badaki erabiltzen, baina ez da testu aberatsa.</p> <p>Ideiak lerrokadetan nahiko ondo biltzen ditu, nahiz eta noiz edo noiz antolamendu hori ez izan oso egokia. Puntuazioa ere desegokia zenbaitetan.</p> <p>Zuzentasuna: Gramatikaren arau nagusiak ondo menderatzen ditu. Hala ere, egitura konplexuetan ez du bete-betea asmatu.</p>
---	---